



IKASTORRATZA, e-Revista de Didáctica, es una revista en formato digital que publica artículos relacionados con los procesos de enseñanza y aprendizaje, a través de Internet y bajo la licencia Creative Commons.

IKASTORRATZA, e-Revista de Didáctica, es una publicación seriada, gratuita y libre de ser impresa que cada seis meses divulga artículos científicos, propuestas didácticas y artículos de opinión sobre cuestiones relativas al mundo de la didáctica.

IKASTORRATZA, e-Revista de Didáctica, asume como objetivo principal la difusión del conocimiento pedagógico y de metodologías didácticas que favorezca la expansión de prácticas de educativas efectivas.

IKASTORRATZA, e-Revista de Didáctica, es una revista bilingüe, abierta a propuestas de autores y autoras que deseen publicar trabajos inéditos tanto en euskara como en castellano.

IKASTORRATZA. Didaktikarako e-aldizkaria

IKASTORRATZA. e-journal on Didactics

IKASTORRATZA. e-Revista de Didáctica

ISSN: 1988-5911 (Online) Journal homepage: <http://www.ehu.es/ikastorratza/>

Estandarraren eragina aztertzeko metodologia eta inplikazio didaktikoak

Juan Abasolo

juan.abasolo@ehu.es

Aitor Iglesias

aitor.iglesias@ehu.es

Naia Eguskiza

naia.egusquiza@ehu.es

Lorea Unamuno

lorea.unamuno@ehu.es

To cite this article:

Abasolo, J.; Iglesias, I.; Eguskiza, N. & Unamuno, L. (2020). Estandarraren eragina aztertzeko metodologia eta inplikazio didaktikoak. *IKASTORRATZA. e-Revista de Didáctica*, 25, 1-22. DOI: 10.37261/25_alea/1

To link to this article:

https://doi.org/10.37261/25_alea/1

Published online: 31 october 2020

Estandarraren eragina aztertzeko metodologia eta inplikazio didaktikoak

Juan Abasolo¹, Aitor Iglesias², Naia Eguskiza³, Lorea Unamuno⁴

¹Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Saila
Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea. UPV/EHU
juan.abasolo@ehu.eus

²Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Saila
Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea. UPV/EHU
aitor.iglesias@ehu.eus

³Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Saila
Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea. UPV/EHU
naia.egusquiza@ehu.eus

⁴Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Saila
Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea. UPV/EHU
lorea.unamuno@ehu.eus

Laburpena

Lan honetan arretagunea eskolatzearen eraginean jarrita, helburu nagusia da metodologia baten proposamena egitea analisi multidimentsionalaren ikuspuntutik. Proposatzen dena da Korrespondentzia Anizkoitzen Analisia (MCA) aldagai linguistikoekin erabiltzea. Metodo honek distantzia linguistikoarekin koherentzia gordetzen du eta elementu linguistikoen identifikazioaz gain, bariazio dimentsioak kuantifikatzeko bidea ere eskaintzen du. Horretarako, Arratia bailarako lau herritako (Dimako, Lemoako, Zeanuriko eta Zeberio) belaunaldi biko (helduak eta gazteak) hiztunen hizkerak eta eskolako euskara estandarra osatzen duen corpuseko elementuak (EAS corpusean oinarrituak) alderatu eta analizatu dira. Datuek erakutsi dute Arratiako gazteen hizkerak euskara estandarretik hurbilago daudela helduenak baino. Distantzia linguistiko handiagoa dago beraz, helduen hizkeren eta estandarraren artean, gazteenen eta estandarraren artean baino.

Gako-hitzak

Alfabetatzea; Hizkuntza estandarra; Bariazioa; Analisi Multidimentsionala; Korrespondentzia Anizkoitzen Analisia; Metodologia; Didaktika

Abstract: From the perspective of the influence of schooling on the use of language, the main objective of this work is to propose a methodology for the study of this influence from the perspective of multidimensional analysis. What is proposed is to use Multiple Correspondence Analysis (MCA) together with linguistic variables. This methodology maintains consistency with linguistic distance and can be used to quantify variational dimensions in addition to identifying linguistic elements. For this purpose, the elements of the corpus (based on the EAS corpus) elaborated with the standard language and dialectal speech of speakers of two generations (adults and young people) and of four towns from the Arratia valley (Dima, Lemoa, Zeanuri and Zeberio) have been compared and analysed. The data have shown that the speech of the young people of Arratia is closer to the standard than the speech of adults. Therefore, the linguistic distance is greater between adults and the standard than between young people and the standard.

Key words: Literacy; Standard Language; Variation; Multidimensional Analysis; Multiple Correspondence Analysis; Methodology; Didactic

Resumen: Desde el enfoque de la influencia de la escolarización en el uso de la lengua, el objetivo principal de este trabajo es hacer la propuesta de una metodología para el estudio de esa influencia desde la perspectiva del análisis multidimensional. Lo que se propone es emplear el Análisis de Correspondencia Múltiple (MCA) junto con las variables lingüísticas. Esta metodología mantiene la coherencia con la distancia lingüística y se puede utilizar para cuantificar dimensiones variacionales además de identificar elementos lingüísticos. Para ello, se han comparado y analizado los elementos del corpus (basado en el corpus EAS) elaborado con la lengua estándar y el habla dialectal de hablantes de dos generaciones (adultos y jóvenes) y de cuatro municipios pertenecientes al valle de Arratia (Dima, Lemoa, Zeanuri y Zeberio). Los datos han mostrado que el habla de los jóvenes de Arratia está más cerca del estándar que el habla de los adultos. Por lo tanto, la distancia lingüística es mayor entre los adultos y el estándar que entre los jóvenes y el estándar.

Palabras clave: Alfabetización; Lengua estándar; Variación; Análisis Multidimensional; Análisis de Correspondencias Múltiples; Metodología; Didáctica

1. Sarrera

Euskara dialektalizazio prozesu etengabea izan da mende askoan, orain, eskolaren eta estandarren eraginez, konbergentzia prozesuan ote den ere aztergai da. Artikulu honetan balizko konbergentziak zein neurri duen azaltzen da eta horren elementu linguistikoak identifikatzeko eta ikertzeko proposamen metodologikoa egiten da. Besteak beste, euskaraz hitz egiten den eremuetako irakasleek balizko baliabide bat izan dezaten errealitate soziolinguistikoa ulertzeko.

Orain dela urte batzuetatik hona eskolatze prozesua euskaraz egiten da Arratiako bailaran. Orain dela urte eta belaunaldi batzuk, berriz, hori ez zen horrela. Etxeko hizkuntza euskara izan arren gaztelaniaz eskolaratzen izan dira Arratiako euskaldun gehien-gehienak, hezkuntzako aldaketa politiko sakonen aurretik.

Aldaketok euskaraz ikasteko aukera ekarri zuten, baina hizkuntzaren irakaskuntzan hizkuntza-eredu estandar¹ bakarra edo eskola hizkera deritzona (Maia eta Larrea, 2010) irakatsi da hizkuntzaren beste aldaera batzuei ere leku egin beharrean. Erlazio gatazkatsu honen zehar-ondorioek badiraute, oraindik orain, eta elkar onartzeko bidean gauden arren, erabaki egin behar da estandarren eta euskalkien arteko harremana nola tratatu ikastetxe bakoitzean. Erlazio honek dituen inplikazio didaktikoengatik, Hezkuntza Fakultatetik ateratzen diren etorkizuneko profesionalak egungo egoeraren berri izatea nahi dugu, eta batez ere errealitatea aztertzeke dauden baliabide metodologikoak ezagutzea.

Horretarako, lan honetan bariazio linguistiko kuantitatiboa aztertzeke teknika bat aurkezten da, Arratiako hiru herritako belaunaldi biren hizkerak (Aurrekoetxea & Ormaetxea, 2004) eta eskolako euskara estandarra osatzen duen corpuseko elementuak alderatuta eta analizatuta.

2. Marko teorikoa

Euskarak dialektalizazio prozesu handi eta luzea izan du, gaur 50 urteko estandarren hasierara arte (Euskaltzaindia Biltzarra 7. 1968. Arantzazu, 1968). Euskararen dialektoen izaera geografikoa Bonaparteren lanekin ikertu zenetik (Bonaparte, 1869, 2013), dialektalizazio prozesu horren ezaugarriak hamaika lanek aztertu dituzte. Oraintsuago hasi da ikerlarien komunitatea aldakortasun sozialaren azterketak egiten, lan kopuru hazia lortu arte.

¹ Estandarra kontzeptua batua baino zabalagoa da komunitatean zabaldua (hezkuntzan, hedabideetan eta administrazioan erabiltzen dena) eta era formalean nagusia den hizkuntzaren aldaera edo hizkera den heinean. Batua/estandarra auzirako ikus Alberdi & Ugarteburu (1999) sarrera.

Euskara estandarra da eskolako lan-hizkuntza gaur. Tokian tokiko herri hizkerek presentzia badute ere, hizkuntza eta hizkera behikularra euskara estandarra da Arratiako eskoletan, euskararen koofizialtasuna duen tradiziozko eremuko zonalde gehiengan legez.

Hezkuntzak eta mass-mediak estandarrerako sarrera bermatzen diete Europako hiztun dialektodunei Auer eta Hinsensen irudikoz (1996); gure kasuan, mass-mediaren eragina baztertzekoa ez bada ere, azken belaunaldietan baino ez da eskolaratu euskalduna euskaraz orokortasunez.

2.1. Dialektometria. Hizkuntza distantziak

Geolinguistikaren adar kuantitatibo eta zientifikotzat jaio zen dialektometriaren teknika Séguyen eskutik (1971), lexikoa eta distantziaren arteko kalkuluetan. Lehenengo zidor urratu horretatik Goebler bide zabala hasi (1984) eta garatu du, beti ere ikuskera geolinguistiko kuantitatiboaren garapenean. Teknikotan estatistikako zenbakizko sailkapenak, taxometriak, datu analisiak eta datu mehatzaritza erabiltzen dira (Goebel, 2006), besteak beste.

Egun ikuskera geolinguistikoetan doitu diren teknikak ikuskera soziolinguistikoetatik erabiltzen hasiak dira zenbait (Lujanbio, 2016; Etxebest, 2017; Eguskiza, 2019; Ensunza, 2015; Louredo Rodríguez, 2019), distantzia linguistikoaren kalkuluetarako hizkeren baldintzatzaile geografikoez gain, baldintzatzaile soziologikoak ere kontuan hartuta. Honek eremu baten errealitate soziolinguistikoaren berri ematen du, irakaskuntzan ari direnentzako ezinbesteko informazioa.

2.2. Estandarrak, herri hizkerak eta dialektometria

Hizkuntza estandarrak eta herri hizkerek elkar elikatzen dutena jakina da. Arraratsi (2018) segituta, euskara bera hizkuntzatzat baino diasistematzat hartu behar izan da oraintsu arte. Hizkuntza estandarraren eragina aztertzeak berezko interesa du horrelako kasuan. Are gehiago Euskal Herrian, estandarra sortzeko euskalkiak oinarritzat hartu direnean (Mitxelena, 1968, 204.orr.):

Ez da nor Euskaltzaindia, orainaz behintzat, oinharritzat zein euskalki hautatuko den erabakitzeko. Badirudi, halarik ere, euskera idatziaren beharretarako egokiagoak direla, besteak beste (eta Bilbao euskaldun ez delarik), erdi-aldeko dialektuak bazterretakoak baino. Nola-nahi ere amore eman beharrean aurkituko gera guztiok, zeinek gehiago zeinek gutxiago, horretara heldu nahi badugu.

Baina eta, zein eragin du euskara estandarrak herri hizkeretan? Zerk du eragin hori gauzatzen?

Hizkuntza minorizatuaz ari gara euskaraz ari garenean, jakina denez. Normalizaziorako bide aldapatsu eta harritsuan lortutako goreneko pausutzat hartzen dira hedabideetan presentzia izatea eta hezkuntza sistemako zoko eta ibarretan euskara estandarra ardatza izatea. Azken horren eragina

zeharo mugatzerik ez badago ere, Euskararen Atlas Sozio-geolinguistikoak² (Aurrekoetxea & Ormaetxea, 2004) euskara estandarra eta mintzamolde tradizionalen arteko zenbait hartu-eman azalera ekartzeko nahikoa datu ditu.

Euskara estandarrak herri hizkeretan duen eragina ikertu da teknika deskriptiboekin eta, EASren datutegia oinarri hartuta (Ariztimuño, 2010; Aurrekoetxea, 2004; Ensunza, 2015; Ormaetxea, 2011; Santazilia, 2009; Unamuno & Aurrekoetxea, 2013), teknika kuantitatiboak ere erabiltzen hasi dira eta baita distantzia linguistikoak, mapa proiektzioak eta Eskalatze Multi Dimentsionala (MDS) ere (Unamuno, Abasolo, Eguskiza, & Iglesias, 2019).

Teknika kuantitatiboak inguruko hizkuntzetan ere erabiliak izan dira, hizkuntza estandarrek herri hizkerekiko duten distantzia ikertzeko. AISaren³ analisisian Goebler (2008) italiara eta frantses estandarretik herri hizkerek duten distantzia neurtzen du. Goebler berak (2013) ALPIren⁴ dialektometrizarazioan iberiar penintsulako hizkuntza erromanikoekin darabil.

Belaunaldien arteko aldea eta hizkuntza estandarren eraginaz egindako ikerketetan batzuk nabarmentzen dira. Bada Leinonen-ek (2010) suedierazko bokalen egituraz egindako lana, MDS erabilia, ezaugarri linguistiko batzuetan aurkitutako konbergentziaz diharduena. Hurbilago dugu Valsek eta bestek (2008) belaunaldi eskolatueta aurkitutako desdialektalizazio prozesua. Amaitzeko, Riveiroko hizkerez Louredo Rodríguezek (2019) egindako tesian gaur eguneko galizieraren ezaugarriez dihardu belaunaldien arteko aldea aztertzeke baliabide dialektometrikoak erabiliaz.

Baina eta, metodologia hori zer den eta zelako emaitzak ematen dituen azaldu beharra dago horien gainerako ekarpena ere plazaratzeko; horra segidako lerroak.

3. Metodoa

Hizkuntza estandarrak herri hizkeretan duen eragina aztertzeke bide egoki eta probatua ematen digu hizkuntzalaritza bariasionistaren dialektometriak (Séguy, 1971; Guiter, 1980; Philps, 1985; Goebel, 1984, 2012, 2006, 2008; Fernández, Roseano, Martínez, & Romera, 2011; Aurrekoetxea, 2009, 2012). Artikulu honetan balioztatutako sistema horri erantsi nahi diogu ezaugarri linguistikoak bistaratzeko gai eta baliokidetzat har litekeena. Hurrengo lerroetan gaingiroki azaltzen dira distantzia linguistikoak kalkulatzeko ohiko prozeduraren nondik norakoa eta aldagai linguistikoekin erabiltzeke

² Hemendik aurrera EAS.

³ Atlas Italo-Suizo (Atlante Italo-Svizzero / Sprach- und Sachatlas Italiens und der Südsweiz).

⁴ Atlas Lingüístico de la Península Ibérica.

lan honetan proposatzen den Korrespondentzia Anizkoitzen Analisia, hemendik aurrera MCA (ingelesezko *Multiple Correspondences Analysis*).

3.1. Distantzia linguistikoa kalkulatzeko bideez-eta

Lehenik eta behin, erabaki behar da zein eratako datuekin ari garen lanean, hau da, datu estandarizatuak ala datuak transkripzio fonologikoaren bitartez kodetu diren. Gure kasuan datu estandarizatuak erabiliko ditugu. Baina azal dezagun zertan den bien arteko aldea.

Oinarri-oinarrian sistema batak eta besteak forma baliokideen arteko desberdintasunak zenbatzen ditu. Forma horien kodeketak, ordea, eragingo zaion neurketara egokitua behar du; hartara, distantzia linguistikokoaren kalkuluaren oinarritzat azaleko ezaugarri morfologikoak erabiltzen ditugunean, *etxea*, *etzie*, *etxie*, *etxi* erako formak alderatzeko, kodeketa fonologikoak informazio aberatsagoa ematen du bestelakoek baino. Baina, demagun badugula asteko egunen izenen gaineko informazioa zenbait herritan, EHHAeko⁵ 271 mapako lagina (Aurrekoetxea, Videgain, & Arejita, 2008) aurkezten da 1. taulan:

1. taula. EHHAko 271 mapako lagina, martitzen lemaduna.

Herria	Lema	Erantzun ortografikoa	Erantzun fonologikoa
Bergara	martitzen	martitzen	maṛtitsen
Bermeo	martitzen	maṛtítxen	maṛtítʃen
Berriz	martitzen	maṛtitzen	maṛtitsen
Bolibar	martitzen	maṛtitzen	maṛtitsen
Dima	martitzen	maṛtisen	maṛtísen
Bermeo	astearte	asteárte	aṣteáṛte
Beasain	astearte	asteáarte	aṣteáṛte
Behorlegi	astearte	asteárte	aṣteáṛte
Beizama	astearte	asteáarté	aṣteáṛté
Beruete	astearte	asteáarté	aṣteáṛté
Bidarrai	astearte	asteáart	aṣteáṛt
Deba	astearte	astíarté	aṣtíaṛté

Azter litezke “martitzen” mintzoa gauzatzeko moduen arteko aldeak, edota “astearte” elearenekoak. Baina alderik esanguratsuena berba bi horien erabilera da, bistan denez. Informaziorik esanguratsuena ez da izango Bermeon astearte *aṣteáṛte* eman dutela, Bermeon *astearte* mintzoaren formaren bat ere eman dela baino.

⁵ Euskararen Herri Hizkeren Atlas 1984. urtetik Euskaltzaindia bideratzen ari den egitasmoa da.

Lemei begiratzeko zaienean distantziak kalkulatu dira corpus oso baten gainean. Esate baterako, Busturiako umeen eta nagusien hizkeraren arteko aldea ikertzeko, Gonzalezek (2001) Busturiko lexikoaz egindako ikerketako lagin honen adibide didaktikoan ikusten dena (2. taula).

2. taula. Barietateko eta estandarreko hitzak erro ezberdinetakoak direnean (lagina) (González, 2001)

Estandarrak	Etxeko hizkerak	Distantzia estandarretik	Umeek	Distantzia etxekotik	Distantzia estandarretik
Jarri	Para, planta	1	Jarri, Ipin	1	0.5
Jende gehiegi	Jente larrei	1	Jente larrei, jente geiegi	0.5	0.5
Kazkabarra	Iñetasixe	1	Txingorra	1	1
Kilkirra	Grillue, txirri-txirrixe	1	Txirri-txirrixe	0.5	0.5
Korapiloa	Marapillue	1	Marapillue	0	1
Korrika	Arrapaladan	1	Korrika	1	0
Lapurtu	Ostu	1	Lapurtu, Ostu	0.5	0.5
Distantzia:		7/7=1		4.5/7=0.642	4/7=0.571

Irizpide didaktikoekin aukeratu diren adibideetan oinarrituta, hizkera estandarrez galdetutako 7 itemetatik 7 aipatzen dira beste berba batzuekin Busturiko etxe horretako hizkeran, $7/7=1$ distantzia linguistikoa geneukake, erabatekoa. Umeen hizkeraren kasuan, berriz, badira 5 berba euskara estandarrekin bat datozenak eta 6 ez datozenak. Etxe barruko hizkera biak alderatuta lagintxo honetako datu hutsei begiratu, distantzia handiagoa kalkulatu da etxeko nagusien hizkeratik umeenera, euskara estandarera baino.

Balio Erlatiboaren Indizea, ingelesezko *Relative Index Value*, (RIV) izenez bataiatu zuen Goeblek (1984), distantzia linguistikoaren kalkularen emaitza. Hori XX. gizaldiaren hasierako matematikari frantziar baten lanean oinarrituta egin zuen; hain zuzen ere, Jaccard-ek (1901) Jaccard Indizean, multzoen antzekotasun edo des-antzekotasuna neurtzeko diseinatutakoan. Irizpide linguistikoaren kalkuluetarako egokitu beharra zegoen, hizkera batean baliokidetzat har daitezkeen formen agerkeraren trataerari. Irtenbidea aurkitu zioten Diatech dialektometriarako on-line aplikazioan (Aurrekoetxea, Fernandez-Aguirre, Rubio, Ruiz, & Sanchez, 2013), lan honetan darabilgun erreminta hizkeren arteko distantzia matrizeak kalkulatzeko; dialektometriako berezko maparatze aukerak-eta ez dira erabili azterketa honetan.

Distantzia matrizea oinarri hartuta, zenbait sailkapen metodo erabili ohi dira ebidentzia enpirikoetan oinarrituta, hizkera multzoak definitu eta zehazteko. Lan honetan multzoen analisia, *cluster analysis* ingelesez, erabiliko dugunez, era horri begiratuko diogu.

Matrizeko datuen interpretazio matematikoan, taldeak identifikatu behar dira euren arteko hurbiltasun/urruntasunaren arabera, hizkerak/dialektoak/soziolektoak eta abar identifikatzeko. Taldeak sortzen direla esana dugu, talde bakoitzak bere baitan ahalik eta bariantzarik txikiena izatea du helburu lan honetan aurkezten dugun Ward sistemak. Beste metodo eta sistema batzuk egon badauden arren, berau aukeratu da distantziak eta kidetasunak gehien maximizatzen dituen izateagatik. Multzokatzearen inguruan gehiago jakiteko, linguistikan Goebel (2006), Aurrekoetxea (1995, 2009, 2012) eta matematikan Everitt (1974), Hartigan (1975) lanetara jo behar sakondu nahi duen irakurleak.

Taldekatze prozesu horiek irudikatzeke, *dendograma* izeneko grafikoak erabiltzen dira, azpikoz gora marraztutako arbola baten forma hartzen dutenak. Behean elementu guztiak agertzen dira eta hurbilen duten elementu edo taldearekin batzen duen adarra irudikatzen du dendogramak; batuera bakoitzak azpitalde bat irudikatzen du eta prozesua errepikatzen da elementu guztien batura egiten den arte.

3.2. Korrespondentzia Anizkoitzen Analisia zer den

Korrespondentzia Anizkoitzen Analisiak (MCA) distantzia linguistikoaren kalkularen kasuan ez bezala, ez du zenbakizko abstrakzioerik proposatzen. Edo, zehatzago esanda, ez du galtzen erreferente linguistikoa kalkuluan zehar. Aztertu behar diren datuek, delako p itemei n informatzailek ematen dizkieten erantzunekin, matrize bat osatzen dute. (Zarragoitia & Urkaregi, 2015). MCAk dimentsio gutxiagotako espazioan laburtu nahi ditu datuak. Espazio hori deskribatzen duten bektore batzuk kalkulatu dituzte, *bektore propioak* izenekoak, eta bektore propio horietan p item eta n informatzaileen kokapena zein den eta zein ekarpen neurri duten ere kalkulatu du.

MCAren proiektzio grafikoa bi edo hiru dimentsiotan egin ohi da. Elementuen arteko elkartze maila ere irudikatzen da aldagaien mailen eta indibiduen proiektzioa eginaz, gurean aldagai linguistikoak eta hizkeren proiektzioa. Elkarrengandik hurre irudikatzen diren hizkera eta forma linguistikoak elkarrekin gertatzeko aukera handiagoa dute eta elkarrengandik urrun irudikatutako formak elkar baztertzeko joera dutela ere esan dezakegu. Horrela, ba, azterbide horiek zein laginekin egin den azaltzeko unea iritsia da.

3.3. *Lagina*

Analisi hau egiteko EAS proiektuko Arratia eskualdeko Dima, Lemoa, Zeanuri eta Zeberio⁶ herrietako *oinarri dialektaleko*⁷ formak eta euskara estandarreko baliokide linguistikoak erabili ditugu.

EASEko datuak 2005 eta 2007 urteen artean batu ziren, euskaran gertatzen den adinaren arabera bariazioa ikertu nahirik, 202 itemeko galdesorta 75 herritako sarean aplikatuta. Herri bakoitzean gizonezko gazte baten eta heldu baten erantzun morfologiko, sintaktiko eta lexikoak bildu ziren.

Gure kasuan erabili ditugun datuak Dima, Lemoa, Zeanuri eta Zeberio biko belaunaldi biko informatzaileek emandako oinarri dialektaleko formak dira, batetik, eta horiek alderatzeko euskara estandarreko formak, bestetik. Informatzaileak tradiziozko inguru euskaldunekoak izateaz gain, belaunaldi gaztea, 20-25 urte ingurukoa, euskaraz eskolatua eta hizkera estandarrekin egunerokotasunean hartu-eman duena da. Belaunaldi nagusia, aldiz, euskaraz eskolatu gabea edo nagusitan alfabetatua da.

Euskara estandarreko ereduak erabakitzeko orduan, batzuetan zalantzazkoa izan da berbaren bat euskara estandartzat hartu ala ez, Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuan (Euskaltzaindia, 2010) agertu eta zabalpen handikotzat har litekeelako. Horrelako kasuetan, zalantzako lema euskara estandarrekotzat hartzeko, agerrera kopurua aztertu da Euskaltzaindiaren *XX. mendeko Euskararen Corpus Estatistikoan*⁸ ratioa baino handiagoko kasuetan lema estandartzat hartu da eta baxuagoetan dialektaltzat. Esate baterako, *martitzena* lema 3 agerrera ditu XX. mendeko Euskararen Corpusean, Hiztegi Batuan agertzeaz gain; baina *astearte* lema agerrera kopurua 125 denez lehenengoari ez zaio esleitu *estandar* kategoria, 0.2 ratiotik urrunekoa baita 0.024koa (3. taula).

⁶ Arratiako mendebaldeko muga finkatzean autoreak ez datoz bat. Bonapartek (1869) Arrigorriagako barietatean kokatzen du, Etxebarriak (1991) egindako azterketa etno-linguistikoan, aldiz, nonbaiten kokatzekotan Arratian kokatuko lukeela dio. Gamindek (2007) egindako azterketa kuantitatiboan Arratian sartzen du eta Zuazok (2014) ere Arratian kokatzen du hizkera hau. Iglesias (2015) eta Eguskizak (2019) ere Zeberio Arratiakotzat hartu dute ezaugarri linguistikoetan daukan antzekotasunengatik, nahiz eta geografikoki ez den Arratia eta gure aukeraketa ere bide honetatik doa.

⁷ Hizkera bateko hitzun zaharrenek ekoizten duten edo erabiltzen duten corpusak osatzen du *oinarri dialektala* Bellmann-en hitzak (1998) geure eginez. Hitzun hauek osatuko lukete hizkera horri dagokion corpusik eta puruena, berezkoena. Beste modu batera esanda, euskalkiko edo hizkerako hitzak erabiltzea, orokorrak diren edo estandarrekoak diren beste batzuen orde.

⁸ <http://xxmendea.euskaltzaindia.net/Corpus/aurkezpena.html>

3. taula: Datuen banaketa

	Forma estandarrak	Gazte	Heldu
Dima		188	193
Lemoa		193	190
Zeanuri		179	194
Zeberio		190	196

199

Aurreko laburpen taulak adierazten du zenbat item alderatu ahal izan diren guztira kategoriako. Nabaria denez, item gehien dituen euskara estandarrari dagokio; horrek azalpen erreza du: itemen erantzunak inkestaz batutakoak dira eta zenbait erantzun batzeke geratu ziren hainbat arrazoiengatik; hartara, aztertu behar izan da ea informazio hutsuneok ausaz banatuak diren. Kontrasteen ez da identifikatu patroirik dagoenik; beraz, ezin baztertu izan da H_0 . Balio galduak ausazkotzat hartu ditugu.

4. Emaitzak

Segidako tartean aurkezten dira, hasieran, distantzia linguistikoan lortutako emaitzak, tradiziozko azterketaren arabera. Eta segidan, aurkezten da MCA teknikak erabilia lortutako emaitzen laburpena.

4.1. Distantzia linguistikoak


Laugarren taulan erakusten den distantzia matrizeak RIV distantzia linguistikoaren berri ematen du, hau da, identitatean oinarrituta izan litezkeen 100 bat etortzetik zenbateko berdintasuna/desberdintasuna dagoen adierazten du. Sarrera bikoitzeko taulak zutabe eta lerroen arteko gurutzunean ematen du distantziaren berri 0-100 eskalan, 0 delarik erabateko berdintasuna eta 100 erabateko aldea.

4. taula: Arratiako hizkeren eta euskara estandarren distantzia linguistiko matrizea

	Dima Gazte	Dima Heldu	A eskolako euskara	Lemoa Gazte	Lemoa Heldu	Zeanuri Gazte	Zeanuri Heldu	Zeberio Gazte	Zeberio Heldu
Dima Heldu	35.14								
A eskolako euskara	60.64	66.32							
Lemoa Gazte	25.41	35.98	58.55						
Lemoa Heldu	35.87	31.55	63.68	31.18					
Zeanuri Gazte	27.75	31.64	55.87	23.60	31.79				
Zeanuri Heldu	36.22	29.47	62.89	32.63	32.45	29.94			
Zeberio Gazte	36.81	33.33	61.58	33.33	34.97	27.75	34.41		
Zeberio Heldu	35.68	31.05	64.29	32.46	35.83	29.78	36.98	31.55	

Lehenengo begiradan, espero izatekoa zatekeen moduan, distantziak laburragoak dira Arratiako hizkeren euren artekoak estandarrekikoak baino. Informazio horren guztiaren laburpena eskaintzen du dendogramaren multzokatze deterministak, zeinek euren arteko distantziak kontuan izanda multzoak sortzen dituen. Gure kasuan ahalik eta bariantzarik txikiena duten multzoak sortzen dituen Ward-en metodoa (Ward, 1963) erabili dugu (1. irudia).


1. irudia. Ward-en taldekatzearen arabeko dendograma



Dendogramaren begizko analisisian nabarmentzen da euskara estandarra eta Arratiako herri hizkerak talde bi direla. Arratiako hizkeren taldean, berriz, argi ikusten da Lemoa, Dima eta Zeanuriko kasuetan gazteen eta helduen hizkerak multzo desberdinekoak direla. Zeberio kasuan, ordea, gazte eta helduen hizkerak multzo bakarrean ikusten dira, beste herrietako gazteen hizkerekin batzen dena.

Euskara estandarrarekiko distantzia linguistiko hutsari begiratuta, herriko hizkeren arteko distantzien gaineko informazioa bazter utzita, datuei ikuspuntu monodimentsionaletik begira dakieke hurrengo grafikoan (2. irudia), hots, bigarren irudian, belaunaldiak eta estandarra kolorez nabarmenduta.

2. irudia. Belaunaldien eta estandarraren arteko distantzia linguistikoa ikuspuntu monodimentsionaletik



Arratiako herri hizkerak batasun urrun bat osatzen dutela ematen badu ere, koloreek argi eta garbi nabarmentzen dute euskaraz eskolatutako belaunaldiaren hizkerak distantzia linguistiko txikiagoa dutela euskara estandarrarekiko helduenen hizkerak baino, aukeratu diren neurriak erabilita.


Segidan erakusten dira, datu berberak erabilita, artikulua honetan erakutsi nahi ditugun teknikaren emaitzak.

4.1.1. Arratiako hizkeren eta euskara estandarraren Korrespondentzia Anizkoitzen Analisia

Hasierako datuen matrizea bera erabilita, hizkeren arteko distantziarik kalkulatu barik, hizkera bakoitzak darabiltzan aldakiak noiz datozen bat non eta zein neurritan aztertzeke erabili da MCA; antzekotasunen eta aurkakotasunen berri ematen duen analisia.

Korrespondentzia Anizkoitzen Analsiaren lehenengo bi dimentsioek datu guztien bariantzaren erdia baino gutxiago azaltzen dute. Hirugarren irudiak erakusten du elementuen banaketa dimentsio biko espazio horretan. Urdinez hizkerak eta gorriak aldakiak. Aldakien etiketak gris argirik idatzi dira, irakurlea etiketa multzo handiez jabetu dadin (3. irudia).

3. irudia. Estandarra eta Arratiako hizkeren MCA



Grafikoaren azterketak erakusten digu lehenengo dimentsioak Arratiako hizkerak, grafikoaren ezker aldean, eta eskuinaldeko euskara estandarren arteko kokatasuna irudikatzen duela. Gorriz irudikatutako aldakiei dagokienez, eskuinean puntu bakartzat irudikatu arren etiketa multzo handiaren berri ematen digu puntu gorri bakar horren azpiko beltz gunek. Puntu horretan irudikatzen dira, hizkera estandarren kokapena baino urrunago, euskararen molde estandarrean erabili bai, baina Arratiako euskararen ageri ez diren aldakiak.


Bigarren dimentsioak Arratiako hizkera batzuen arteko aurkakotasuna irudikatzen du. Hori antzematen da grafikoaren erdiko atalean. Antza Arratiako hizkeren arteko desberdintasunik handiena Zeberioko hizkeren eta Zeanuri, Lemoa eta Dimako nagusien artekoa da.

Arratiako Dima, Zeanuri eta Lemoako gazteen hizkeren berezko ezaugarriak ez ditu gehiegi bereizten grafiko honek, Dim 1 eta Dim 2ko 0 ardatzetik hurbil irudikatu baitira.

4.1.2. Lehenengo dimentsiotik so

Lehenengo dimentsio hutsezko proiektzio batek (4. irudia) Arratiako hizkerak - euskara estandarra ardatzeko kokapenak erakusten ditu.

Dim 1 % 31.92




Dimentsio honetan antzematen da gazteen hizkerak gutxiago errepresentatzen direla eta hizkera estandarretik gertuago daudela Arratiako helduekin alderatuz. Bestalde, hurrenkera bat errepikatzen da estandarrekiko hurbiltasun horretan: Zeanuri, Zeberio, Lemoa, Dima. Gazteen eta nagusien hizkerak dimentsio honetan duten kokapena aztertzeke, lagin biren Wilcoxon-Mann-Whitney testa erabili da ea denak talde batekotzat ala bikotzat hartu behar liritekeen ondorioztatzeko; emaitza $W=0$, $p<0.029$ izan da, gazteak eta helduak dimentsio honetan behintzat, desberdinak dira. Bisualki iradokitzen den aldea estatistikoki ere adierazgarria da % 95 konfidantza mailan; baina Efektuaren Tamainak nabarmena izan den beste ezaugarri bat ere baieztatzen digu estatistikoki: aldea oso txikia da.

Dimentsioak aldakiek osatzen dituzte eta MCA analisiak dimentsioen osaketa aztertzeke aukera ematen du. Segidan interesgunea izan dugun lehenengo dimentsioa, Arratiako hizkerak - euskara estandarra, zerk osatzen duen erakusten da.

Kontuan izatekoa da 512 aldakiz ari garela. Oraingo honetan datuak grafika batez erakusten dira (5. irudia), irakurleak osaketaren egituraren berri har dezan, baina aldakiak eurak aparteko taula batean aurkeztu behar dira irakurgarri gerta daitezen, dagozkien itaun eta ekarpen ehunekoen datuetatik erantzita.

5. irudia. Aldagaien ekarpenak DIM 1era



Aurreko grafikoko datuek nahikoa argi irudikatzen dute egitura bat badela azpian. Aldaki guztien ekarpena % 100ekoa da, aldakiok antolaerak osatzen baitu DIM-1 hori. Egituran aztertuta ikusten da batzuk pisu berbera dutela, denak gorengo ekarpen neurria dute, % 0.6 baino gutxixeagoko ekarpena dute eta 82 aldaki dira. Horiek osatzen dute euskara estandarreko hizkerako aldakiak, Arratiako ezeinek ez duena berezko formatzat komunikatu. Hurrengo talde txikixeago bat da % 0.1eko ekarpenetik % 0.3ra doana. Hor aurkitzen ditugu, batez ere, eskolatutakoek emandako erantzunak, Arratian gero eta zabalpen handiagoa dutenak, nahiz bat edo beste estandarrekoa eta Arratiakotzat har daitekeena, herri hizkera guztietan batu ez den arren. Denera 31 aldaki dira. Talderik handiena, berriz, % 0.1eko ekarpena baino baxuagoa dutenetan hasi eta ekarpenik ez dutenak hasten diren unerainokoa dugu. Horretan aurkitzen ditugu Arratia osoan erabiltzen ez diren Arratiako formak gehienbat, baita formaren bat edo beste estandarretik zabaltzen hasitakorik ere. Azken taldea, osotasunean ez da eman irudian, osatzen dute bat ere bariantzarik erakusten ez duten formak, hau da, euskara estandarrean zein Arratiako hizkera guztietan batu diren aleak. 5. taulan erakusten dira gorago azaldutako grafikaren aldakiak lau talde nagusitan.

5. taula. DIM-1, Estandarra-Arratia


Azalpena	Datuak
Arratian ez	aitaginarreba, Aitorri, aizto, amaginarreba, amona, ardo, arratsalde, astoekin, astoentzat, azazkal, aztal, bart, begiratu, buruorraz, dadin, daiteke, dakarte, dakartza, daukate, dauzka, dezake, dezan, didazu, die, diezaioke, dik, dio, diogu, diote, dituzte, ditzan, du, dut, dute, duzue, eguberri, erratz, erren, eseri, etorri al da, garesti, gehiegi, giltza, hauek, herdoil, herenegun, herria, hilerri, hileta, honi, hotzeri, hura, itsasorantz, izeba, jolastu, konorte galdu, kosk egin, larunbat, lehorte, naiz, nola, nortaz, oinutsik, onil, ostiral, ozpin, piztu, tipula, trumoi, zabiltzate, zait, zarete, zatozte, zaudete, zeukan, zilbor, zitzaidan, zitzaizkion, zoazte, zuen, zur
Estandarretik batez ere	abuztu, ahal n, alfer, berdin Nnori, ditu, errauts, errieta egin, gazta, gurin, haragi, hasperen, inbidia, janarazi, jaurti, korrika, logela, nekatu, nindoan, odoloste, ostadar, pospolo, uholde, urratu, zaldar, zaunka egin, zenuen, zerua, zeuk, zirimola, zituen, zuhaitz
Arratiako guztietan desberdina eta ez osoa; forma batzuk estandarrean ere erabil daitezke	andraize, atzo gauean, birritan, bronka, daiten, eguberri, eukoza, haginka, iaz, jaurtin, joan, joateko, junio, kostipado, kuartu, nekatu, tia, zaldar, zigortu, agostu, ahal da, ahal dau, ahal dau, ahal deutse, ahal deutso, ahal nn, ahausi, ahausi, ainguruorraz, aitaxe, Aitorreri, alaba, alabea, alfiler, alper, amama, amaxe, amoma, andraxa, anka, apellidu, apurtu, arbol, arbola, arda, arin joan, arineketan, arkoiris, arnas, arnasestu, arrasti, astoagaz, astoakaz, astoantzako, astoantzat, astoantzeko, astoaz, atzazal, atzazkal, atzo gauean, atzo gauean, auen, autze, azul, baino, bakarrik, bariku, bart gauean, begibakar, begira egon, begitu, beharko duzu, beharko zara, berdin NNN, beren, berna, berna, berna, bernaoste, bi bider, bildurra sartu, binagre, birritan, bola, bronka, burduntzali, burruntzali, buskantz, buzkantz, dadie, dagien, daien, daike, daiten, daizen, daizen, dakar, dakardie, dakarrie, dakartie, dakaz, dau, daukie, daukoz, daukoza, daure, daurie, dauriez, dauz, dauzen, deseetan, desmaiau, deu, deustezu, deustie, deustuzu, deutse, deutsegu, deustie, deustie, deutso, deutso, deustogu, deustugu, dezake, dite, ditu, dot, dotzegu, dou, dozue, durundu, dutzegu, eban, eban, ebazan, egur, enbidia, enbudo, entierro, erosteko, erosteko, erremolino, erruki, esarri, eskoi, eskuma, etorri, etorri da, etorri zatezie, euen, eukasan, eukazan, euki + lag, euria da, euria dabil, euria egiten du, ez da etorriko etxera, ez da etxera etorriko, faltso, fardel, gabon gau, gabonak, galapan, gana, garau, garo, garun, gauean, gaztai, gedar, gedar egin, gela, ginarra, ginen, gintzen, gintzezan, gogo, granu, gripe, gurutza, ha, haginka, haizepel, hanka, hankabitor, hauts, hegoaize, heregun, herrie, honek, honeri, honik, hozpera, iaz, iazko urtean, idergi, ietargi, ilargi, inarra, inizitu, inperdible, intierru, inundasino, irten N, irten NN, itargi, itsasora, itsasoraino, itsasorantza, itsasorarte, itxi, izeko, izetu, izter, jakozan, jan, jan behar, jan egin, janarazo, jarri, jata, jatan, jaten dabil, jaten dago, jaurtin, joan, joan nintzen, joan zatezie, joateko, joaten nintzen, jok, junio, kanposantu, kantzau, karran, karu, katarro, kazo, kinpula, kojo, konortea galdu, konozimentua galdu, koskilla, kostipado, kostunbre, koxo, kuartu, kutxillo, lagundu NN, laike, lar, larregi, lehengo urtean, lei, lei, lei, leike, leike, leike, leikio, leikite, maderable, mantekilla, mareau, mareo, matrakan egin, mesa, morsilla, nagi, natibitate, naz, noala, nogaz, nor, norekin, ohol, ohol, oinaztu, okela, okola, olgau, orratz, ortozik, ortusantu, ostruku, pasa den urtean, pena, posporo, sg, sg, sien, sikite, suegra, suegro, suin, sur, surteko hauts, suspiro, tartalo, tirrin, tuerto, tutu, tximist, uber, udagoin, udazken, uger, urdin, uriol, zabizie, zaida, zaite, zaiten, zaiten, zankaloste, zapatu, zarie, zarratu, zatitu, zatozie, zauen, zauezan, zaun, zauzen, zauzie, zelan, zelo, zenduen, zendun, zeniza, zeñuen, zerue, zil, zilbot, zinduen, ziñuen, ziñun, zoazie, zoazie, zorabiatu, zotin, zugatz, zuk, zur egur
Estandarra eta Arratia	ate, barruan, berakatz, bere, bota, egur, ekain, ezker, giltza, hanka, hauts, ihintz, itxaron, izara, kili kili, lagundu NNN, lore, ohitura, oilasko, ordu, orkatila, orratz, perretxiko, pl, pl, udaberri, zabaldu

Lau talde horietan lehenengoak eta azkenak osotasunezko informazioa ematen dute, aldakortasunik gabekoa: lehenengoan estandarrean bai baina Arratiako hizkeretan presentziarik ez duten ezaugarriak agertzen direlako eta azkenekoen denean dutelako presentzia. Erdiko beste bietan, berriz, ñabardura gehiago dago, sakontasun handiagoz aztertzea merezi duena.

4.1.3. Bigarren dimentsiotik so

Nahiz eta azalduak ditugun lehenengo dimentsioko datuetan Arratiako hizkerak - hizkera estandarra zer aldakortasunean ardaizen den, bigarren dimentsioak izan ditzakeen azalpen aukerei ere begiratuko diegu 6. irudian.

6. irudia. Aldagaien ekarpenak DIM 2ra



Bigarren dimentsioan, DIM 2, azaltzen da datu guztien bariazioaren % 12.06. Hor berriro ikusten dira gazteen hizkerak, Zeberiokoa izan ezik, euskara estandarretik hurbilago daudela, besteak baino. Seigarren irudian ikusten da euskara estandarra eta Arratian eskolatutako gazte gehienek hizkerak zero baliotik hurbilen; horrek esan nahi du dimentsioak irudikatzen duen aurkakotasunean Zeberioko hizkerak beste herrietako helduen hizkerekiko aldean ez dutela apenas eraginik. Beraz, euskara estandarrak eta Lemoako, Zeanuriko eta Dimako gazteen hizkerek segitzen dute elkarrengandik hurre, ezaugarri faltan.

5. Ondorioak

Ikuspuntu bitatik heldu behar diegu artikulu honetako ondorioei: lehenengo ikuspegian, analisia egiteko erabili dugun ez ohiko teknikaren eraginkortasunari helduko diogu; bigarrean, oster, lortutako emaitza guztien azterketari eta hausnarketari eta horrek eduki beharko lukeen esku-hartzeari Hezkuntza Sistemari.

Teknika ez-ohikoen eraginkortasunaz, esan dezakegu MCA izeneko teknikak bariazio diatopikoaren ikerketan tokia izan dezakeela. Datuen aldakortasunaren neurria emateaz gain, aldakuntza horren elementu linguistikoak ere identifikatzen ditu, dimentsio bakoitzean. Era berean,

ohiko teknika dilektometrikoetako emaitzekin koherenteak izan dira MCAREN bitartez lortu direnak. Arratiako hizkerak eta euskara estandarra alderatzeko MCAk erakutsi du egokia dela, aldakortasunaren neurriaren berri emateaz gain, aldakortasunaren eragile linguistikoak azaltzeko ere egokia izan da-eta. Azterketa mota honetarako egokia izan daiteke MCA, baina beste corpus batzuekin ere erabili behar litzateke azken baieztapen hori oinarritzeko.

MCA eta dialektometria tradizionalen analisiaren bateragarritasunaren kuantifikazioa hurrengo lan batzuetan garatu behar litzateke; analisi bakoitzaren aukerak legokiekeen eremuan hobesteko.

Lortutako emaitzei dagokienez, aurkitu dira ebidentziak esateko Arratiako gazteen hizkerak euskara estandarretik hurbilago daudela toki bereko helduenak baino; zehatz, distantzia linguistiko handiagoa dagoela helduen hizkeren eta estandarraren artean, gazteenen eta estandarraren artean baino. MCAk eraikitzen dituen dimentsioen artean lehenengoa dagokio euskara estandarraren eta Arratiako hizkeren arteko aurkakotasunari; dimentsio horretan ere lehen aipatutako ezaugarri hori ikusten da, aurkakotasun maila apalagoa erakusten baitute gazteen hizkerek estandarrarekiko, helduenek baino.

Irudien analisisan, baina, ikus dezakegu, dendogramen egitura analizatuta, talde batekoak direla Arratiako hizkera guztiak, heldu eta gazteena, eta euskara estandarra beste adar batekoa dela.

MCAREN emaitzek argi irudikatzen dute, Arratiako gazte eta helduen hizkerak euskara estandarrarekin alderatzen direnean, gazteen hizkerekiko aurkakotasun txikiagoa dagoela. Euskaraz eskolaratutakoak hizkerak ez daude besteak bezain urrun estandarretik. Aztertu diren aldakien proiektzioen kokapenak analizatuta, euskara estandarretik Arratiako hizkeretara zabaltzen hasitako zenbait elementu ere identifikatu ditugu.

Hizkera dialektalak eta estandarraren arteko erlazioak ikertu nahi direnean, emaitza hauen argitara, MCA erabilgarria izan daitekeela ematen du, aldakortasunaren osagarri eta eragileak ere identifikatzeko aukera ematen baitu.

Egindako analisisiek beraz, agerian utzi dute Arratiako gazteen hizkera estandarretik hurbilago dagoela leku bereko helduena baino. Gazte horiek euskara estandarrean eskolaratuak izan dira eta hortaz, euren hizkera estandarretik hurbilago dago. Horrek beste arretagune bat irekitzea dakar: hezkuntza testuinguru formalean hemen erakutsitako honi guztiari arreta berezia jartzearen beharra, alegia. Sarrerako atalean esan dugu Hezkuntza Fakultateko ikasleek honen berri jasotzea nahi genukeela. Hori ez eze, gaur irakasle direnei eta bihar izango direnei, honen berri emateaz gainera pintzelada batzuk ere helarazi nahi genizkieke, Arratian aztertutakoan eta deskribatutakoan

oinarrituta baina euskalkiaren eta estandarren arteko muga lausoari erreparatuta oro har, hezkuntza testuinguru formalean honi guztiari zelan oratu dakioken iradokiz.

Euskalkiaren irakaskuntzaren inguruan ikuspegi desberdinak planteatu badira ere (Trudgill, 1983; Zuazo, 1999; Maia, 2000; Yiakoumetti, 2007; Tegegne, 2015) guk planteatzen duguna da euskara estandarra eta euskalkia batera lantzea hasieratik, umeak eskolaratzen direnetik, euskara batua ardatz hartuta, paralelismo diaglosikoan (Aurrekoetxea, 2008) euskalkia ere ikasiz. Hizkuntzaren irakaskuntzaren helburua ikaslea ahalik eta erregistro gehienez hornitzea da hizkuntzaren izaera plurala eta erabilesparru guztiak azpimarratuz.

Goikoetxeak (2003, 2005) dioenarekin bat eginez, euskalkia beti ikasi behar da, euskara batua ikasteak ez baitakar euskalkian alfabetatzea. Euskalkia ikasten ez bada, etxekoa osotu barik gelditzen da. Oreka da behar dena. Planteatzen duguna beraz, Yiakoumettiren (2017) hirugarren aukera didaktikoarekin bat egitea da: *(1) the use of the standard variety as medium of instruction; (2) the use of a non standard dialect as medium of instruction; eta (3) bidialectal education, which involves the use of both.* Hortaz, zeregina da, estandarra norberaren barietatetik hornitzen joatea eta alderantziz, bata bestearen aldamenean joatea, elkarrelikatzen, elkarrekintzan (Eguskiza, 2019). Estandarra eta euskalkia ez daitezen hizkuntza bi izan, ikasleak ez daitezen euskaran ere elebidunak izan, hizkera molde biak izan daitezen euskara bakarraren hornitzegune. Gure corpuseko gazteak euskara estandarretik gertu baina eurenetik ere urrun egon ez daitezen.

Honenbestez, honaino iritsi da gure hemengo lan hau. Proposatu den metodologia aurrerantzean beste ikertzaile zein irakurle zenbaiti lagungarri egin dakiokelakoa daukagu. Izan ere, hemen aurkeztu diren datuetan eta proposamen metodologikoan oinarriturik hamaika dira lan daitezkeen hizkera, aldaerak eta gaiak. Metodologiari erreparatzeaz ez eze, ezinbestekoa ikusten dugu eskolek hemen aurkeztutako egoerari kasu ematea. Eskolak joko zelaia behar du izan lekuan lekuko aldaerarentzat, hori ezean, hemen aurkeztutakorantz baikaramatza bideak, hau da, gero eta euskalki estandarizatuagoetarantz. Azken hausnarketa hori etorkizunean etor daitekeen lan baten abiapuntua ere izan daiteke, nork jakin.

6. Erreferentziak

- Alberdi, X., & Ugarteburu, I. (1999). *Euskaltzaindiaren araugintza berria: ikastaroa*. Leioa: UPV/EHU.
- Ariztimuño, B. (2010). Tolosako eta Ataungo hizkerak: hizkuntz bariazioa eta konbergentzia-joerak. *Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, (72), 79–96.
- Arrarats, I. (2018). Batuaz honandikoak. *Jakin*, 225, 22–44.
- Auer, P., & Hinskens, F. (1996). The Convergence and Divergence of Dialects in Europe. New and Not so New Developments in an Old Area. *Sociolinguistica*, 10(1), 1–30.
- Aurrekoetxea, G. (1995). *Bizkaieraren egituraketa geolinguistikoa*. (PhD) Leioa: UPV/EHU.
- Aurrekoetxea, G. (2004). Estandar eta dialektoen arteko bateratze-joerak (ikusuntu teorikotik begirada bat). *Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, (Uztaro 50), 45–57.
- Aurrekoetxea, G. (2009). Iparraldeko hizkeren sailkapena (1): lexikoa. *ASJU XXVIII-1*, 287-331.
- Aurrekoetxea, G. (2012). “Towards a scientific measurement of linguistics boundaries”, In X.A. Álvarez Pérez, E. Ernestina & C. Magro (arg.), *Proceedings of the International Symposium on Limits and Areas in Dialectology (LimiAr)*. Lisboa: Centro de Linguística da Universidade de Lisboa.
- Aurrekoetxea, G., & Ormaetxea, J. L. (2004). Euskararen atlas sozio-geolinguistikoa» ikerketa-proiektua. *Euskalingua*, (9), 157–163.
- Aurrekoetxea, G., Fernandez-Aguirre, K., Rubio, J., Ruiz, B., & Sanchez, J. (2013). 'DiaTech': A New Tool for Dialectology. *Literary and Linguistic Computing*, 28(1), 23–30.
- Aurrekoetxea, G., Videgain, C., & Arejita, A. (2008). *Euskararen Herri Hizkeren Atlas II* (Libk. 2). Bilbo: Euskaltzaindia.
- Bellmann, G. (1998). Between Base Dialect and Standard Language. *Folia Lingüística*, XXXII/1-2, 23,34.
- Bonaparte, L.L. (1869). *Carte Des Sept Provinces Basques Montrant La Délimitation Actuelle de l'euscara et Sa Division En Dialectes et Variétés*.
- Bonaparte, L.L. (2013). Le Verbe basque en tableaux, accompagné de notes grammaticales, selon les huit dialectes de l'euskara : le guipuscoan, le bisciaïen... / par le prince Louis-Lucien Bonaparte.
- Eguskiza, N. (2019). *Hizkuntza aldakortasun geo-soziolinguistikoa Arratian* (PhD). Leioa: UPV/EHU.
- Ensunza, A. (2015). *Busturialdeko euskararen hizkuntza-aldakortasuna denboran eta espazioan* (PhD). Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU.
- Etxebarria, J. M. (1991). *Zeberio Haraneko Euskararen Azterketa Etno-Linguistikoa*. Ibaizabal.
- Etxebest, X. (2017). *Zuberotar dardarkarien bariazio sozio-fonetikoa* (PhD). Baiona: UPV/EHU.

- Euskaltzaindia Biltzarra 7. 1968. Arantzazu. (1968). Arantzazu-Ko Biltzarrak : 1968 Urriaren 3, 4 Eta 5-Ean. *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak*, 13, 137–265.
- Euskaltzaindia. (2010). *Hiztegi batua*. Bilbo eta Donostia: Euskaltzaindia eta Elkar.
- Everitt, B. (Arg.). (1974). *Cluster Analysis*. Chichester, West Sussex, U.K: Wiley.
- Fernández, A.M., Roseano, P., Martínez-Celdrán, E., & Romera, L. (2011). Aproximación al análisis dialectométrico de la entonación en algunos puntos del dominio lingüístico catalán. *Estudios de Fonética Experimental*, XX, 141-178.or.
- Gaminde, I. (2007). *Bizkaian Zehar: Euskararen Ikuspegi Orokorra*. Bilbo: Mendebalde Kultura Alkartea eta Bizkaiko Foru Aldundia.
- Goikoetxea, J.L. (2003). *Euskalkia eta hezkuntza. Dakigunetik ez dakigunera. Euskal Diglosia irazian*. (PhD). Bilbo: Euskaltzaindia.
- Goikoetxea, J.L. (2005). Ahozko euskara: dakiguna eta darabilguna. *Euskera-I*, 747-764.
- Goebel, H. (1984). *Dialektometrische Studien: Anhand Italoromanischer, Rätomanischer Und Galloromanischer Sprachmaterialien Aus AIS Und ALF*. Tübingen: M. Niemeyer.
- Goebel, H. (2006). Recent Advances in Salzburg Dialectometry. *Literary and Linguistic Computing*, 21(4), 411–435.
- Goebel, H. (2008). La dialettometrizzazione integrale dell' AIS: presentazione dei primi risultati. *IREG Strasbourg*.
- Goebel, H. (2013). La dialectometrization del ALPI: rápida presentación de los resultados. In E. Casanova & C. Calvo Rigual (Arg.), *Actas del XXVI Congreso Internacional de Lingüística y de Filología Románicas: Valencia 2010*. Berlin: De Gruyter.
- González, S. (2001). Barietatea eta estandarra: Batuaren eragina ume bizkaitar biren hizkeran. *Enseiukarrean: Deustuko Unibertsitateko aldizkaria*, (15), 89–144.
- Güter, H. (1980). Les méthodes quantitatives en géolinguistique sont-elles équivalentes?. *Actes del 16 CILFhR* (Ciutat de Mallorca, 7-12 d'abril de 1980), 2, A. Moll (arg.), 1985, Palma de Mallorca, 355-367.
- Hartigan, J. A. (1975). *Clustering Algorithms* (99th. arg). New York: John Wiley & Sons, Inc.
- Iglesias Chaves, A. (2015). *Igorreko hizkeraren azterketa dialektologikoa*. (PhD). Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. <https://addi.ehu.es/handle/10810/18416>
- Jaccard, P. (1901). Distribution de la flore alpine dans le bassin des Dranses et dans quelques régions voisines. *Bulletin de la Société Vaudoise des Sciences Naturelles*, (37), 241-272.
- Lujanbio, O. (2016). *Hizkuntza-aldakortasuna euskaran. Nafarroa ipar-mendebaldeko bi udalerritan egindako azterketa*. (PhD). Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU.
- Leinonen, T. (2010). *An Acoustic Analysis of Vowel Pronunciation in Swedish Dialects*.

- Louredo Rodríguez, E. (2019). *Variación e cambio lingüístico en tempo aparente: o galego do Ribeiro* (PhD). Santiago de Compostela: Universidade de Santiago de Compostela.
- Maia, J. (2000). *Eskolako hizkera ereduaz, euskara batuaren eta euskalkiaren arteko harremanen testuinguruan*. (PhD). UPV/EHU.
- Maia, J., & Larrea, K. (2010). *Euskara batua eta euskalkiak Haur eta Lehen Hezkuntzan*. Leioa: UPV/EHU.
- Mitxelena, L. (1968). Ortografia. *Euskera*, 13, 203-219.
- Ormaetxea, J. L. (2011). Apparent Time Variation in Basque: Variation in Aramaio and Otxandio. *Dialectologia: revista electrònica*, (6), 25–44.
- Philps, D. (1985). *Atlas dialectometrique des Pyrenees Centrales*. (PhD). Toulouse.
- Séguy, J. (1971). La relation entre la distance spatiale et la distance lexicale. *Imprimerie Protat Frères*.
- Santazilia, E. (2009). Luzaideko hizkuntz bariazioa. *Fontes linguae vasconum: Studia et documenta*, 41(111), 219–248.
- Tegegne, W. (2015). The Use of Dialects in Education and Its Impacts on Students' Learning and Achievements. *Education Journal*, 4, 5, 263-269.orr.
- Trudgill, P. (1983). *Accent, dialect and school*. London: Edward Arnold.
- Unamuno, L., & Aurrekoetxea, G. (2013). Dialect Levelling in the Basque Country. *Newcastle Working Papers in Linguistics*, 19(1), 152–167.
- Unamuno, L., Abasolo, J., Eguskiza, N., & Iglesias, A. (2019). "Euskararen Atlas Sozio-Geolinguistikoa" *Euskara Estandarretik so*. Iruñea: FLV, 50 Urte: Metodo Eta Joera Berriak (Euskal) Hizkuntzalaritzan. I
- Valls, E. (2008). La desdialectalització del català nord-occidental: cap a una convergència total amb l'estàndard? *De Lingua Aragonensi*, (4), 55–89.
- Ward, J. H. (1963). Hierarchical Grouping to Optimize an Objective Function. *Journal of the American Statistical Association*, 58, 236–244.
- Yiakoumetti, A. (2007). Choice of Classroom Language in Bidialectal Communities: To Include or to Exclude the Dialect? *Cambridge Journal of Education*, 37(1), 51-66.orr.
- Zarragoitia, A., & Urkaregi, A. (2015). Inkesten emaitzetan oinarrituriko balorazio-adierazle orokorra sortzeko proposamena. *EKAIA Euskal Herriko Unibertsitateko Zientzi eta Teknologia Aldizkaria*, 105–116.
- Zuazo, K. (1999). *Deba Ibarreko euskeria*. Antzuolako, Aramaio, Aretxabaletako, Arrasateko, Bergarako, Eibarko, Elgoibarko, Eskoriatzako, Leintz-Gatzagako, Oñatiko eta Sorluzeko Udalak.